



KUDEAKETA PLANA 2026

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA



AURKIBIDEA

SARRERA	3
1- ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA	4
2- GEOTURISMOA	7
3- LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA	9
4- BERTAKO GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA	11
5- GESTIO OROKORRA, KOMUNIKAZIOA ETA MARKETINA	12

SARRERA

2026ko kudeaketa plana Geoparkearen eginkizun nagusiak sendotzeko eta egungo erronkei modu jasangarrian erantzuteko tresna estrategikoa da. Plan hau bost lan-ardatz nagusiren inguruan egituratzen da, zientzia, kultura eta hezkuntzatik hasi eta geoturismoa, lurraldearen kontserbazioa, bertako garapena eta kudeaketa orokorra barne hartzen dituztenak. Ardatz horiek elkar osatzen dute, eta helburu komun bati erantzuten diote: Geoparkearen balio natural eta kulturala zaintzea, zabaltzea eta etorkizunera proiektatzea.

2026an, aurreko urteetako lan-ildoen jarraipena egiteaz gain, bereziki garrantzitsuak diren interpretaziorako azpiegitura berrien irekiera izango da, Next funtsen bidez gauzatuak.

Lurraren zientzien (LLZZ) dibulgazioa eta ikerketa bultzatzen jarraituko dugu, bertan eta nazioartean, Geoeskolekin harremana indartuz.

Geoparkeen Sareen baitan ere ezhoiko ekitaldiak izango ditugu aurten, ebaluatzaileak etorriko dira Geoparkearen lau urteko jarduna aztertzerako eta Espainiako Sareko Geoparkeen Jardunaldi Irekiak antolatuko dira gurean, esperientzien trukea eta sare-lana indartzeko funtsezko aukera izango dena.

Urte honetako lehentasun nagusi horiek Geoparkearen posizionamendua sendotzen lagunduko dute, bai lurraldearekiko konpromisoan, bai estatuko eta nazioarteko sareetan duen paperean.

1- ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honek Lurraren Zientzien eta natura- eta kultura-ondarearen ikerketarekin eta gizartearatzeari lotutako helburuei erantzun nahi die. Zehazki, ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoan, itsas ondarean eta ondare ukiezinean jartzen du arreta. Ardatz honen helburua da, halaber, ingurumen-hezkuntza koordinatuaren eskaintza garatzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat bisitari motarentzako gune interesgarri bihurtu dadin, eskola-eremuan bereziki.

Geoparkeko teknikarien zeregin garrantzitsu bat ikastaroetan eta hitzaldietan parte hartzea da, bai online, bai aurrez aurre. Ikusgarritasun handiko lekuak dira, oso publiko zehatzari zuzenduak, eta horien artean Geoparkeak bere burua kokatu nahi du ondare geologikoa ikertzeko, kudeatzeko eta zabaltzeko erreferente gisa.

1.1. Lurraren Zientzien (LLZZ) dibulgazioa eta ikerketa

- 2026ko [ikerketa bekaren](#) oinarriak kaleratu dira. Urtarrila bukaeran hautatuko da aurten garatzen lagunduko dugun proiektua.
- Batzorde Zientifikoarekin harremana estutuko da, berme zientifikoa emango duen aholkularitza sustatuz.
- Bi urteroko gidarien formakuntza ikastaroa, interpretaziorako azpiegitura berriekin lotuko dugu. Beraz, urte bukaeran izango da.
- Fosilen bilduma eguneratzen jarraituko dugu. Gero eta herritar gehiago gerturatzen dira Geoparkera beraien bilduma ezagutzera emateko.
- LLZZ dibulgazioa egingo da, hitzaldiak aurrez aurre eta telematikoki.

1.2. Arkeologia ondarea eta historiaurreko ikerketa eta dibulgazioa

- Debako Udalak Next funtsen baitan HAB-ko 2. faseari ekingo dio. Praileaitz eta Ermittiako inguruetan esku-hartzea egingo da eta Geoparkeak interpretazioko edukien ardura izango du.
- Ermittiako kobaren indusketa egingo da. Barrualdean, urtero egiten den lanari jarraipena emanez eta kanpoaldean egurrezko azpiegitura ipini aurretik egin behar dena.

1.3. Ondare ukiezinaren zabalkundea

Hiru herrietako euskara/kultura zerbitzuekin, ekimen bateratuak bultzatuko ditugu. Itsas tradizioak eta bestelako ondare ukiezina kontserbatuz eta sustatuz. **Erromeria** bat sustatzea izan daiteke aukera.

Udaletako Kultura teknikariekin elkarlanean ekintza amankomun bat egitea proposatuko da, adibidez, **Europako Ondarearen Jardunaldiei** begira.

1.4. Ingurumen-hezkuntza. Geoeskolak

2025ean Geoeskolak proiektua berraktibatzeke neurriak hartu ziren, ondorioz, 2026an bai Geoparkea eta eskolen arteko harremana eta bai euren artekoa sendotu egin da.

Aurreko urteetako Unitate didaktikoez gain, bestelako ekimenak egingo dira:

- AEPECTeko LLZZ hezkuntzan aditu baten eskutik 100 irakasle inguru formakuntza jasoko dute, lau tailerretan banatuta.
- Geoeskoletako irakasleentzat geoparkearen inguruko formakuntza orokorra, ikasturte hasieran edo bukaeran izango da eskolaren arabera.
- Geoparkeak, arroka eta mineralen maleta bat eta horrekin lotutako jarduera bat sortuko du.

- Batxilergoko ikasleentzat geologian formakuntza egingo da.
- Geoeskolen arteko elkartrukea sustatzeko hainbat ekintza egingo dira urtean zehar: Lehen Hezkuntzan marrazki, ipuin edo bertsoak; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aldiz, podcast edo bideoak.
- Catalunyako Camp de Aprenetage-eko ekimenen eskaera kudeatu, material berria ekarri eta banatu.

2- GEOTURISMOA

Geoturismoa edo ekoturismoa dira Geoparkeak dituen turismo garapenerako ereduak. Hau da, kontserbazioa lehenetsiz turismoa bertako garapenaren aldeko tresna bihurtzea, natura- eta kultura-ondarea balioan jarri eta interpretatzen duen bitartean.

2.1. Produktuak eta baliabideak

Azpiegitura berrien irekierarekin gaur egun eskaintzen diren esperientzia batzuk aldatu egingo dira: Nautilus, Flyscha Haurrekin edo Irteera Geologikoa, esaterako. Dena prest dagoenean bisitak berdiseinatu egingo dira behar diren aldaketak eginez.

Herrigunean taldeekin egiten diren bisita gidatuek sor ditzaketen eragozpenak sahiesteko, zarata kontrolatze aldera, taldeekin radiogidak edo app-a erabiltzeko azterketa egingo da.

Irteera gidatuen salmenta puntu berri batzuk gehituko ditugu (Civitatis, Donostia-San Sebastián Turismo, etab.)

Ekoturismo klubeko ekimenetaz baliatuz, promozioa areagotuko da azokei, sare sozialei edo beste tresna digital batzuei probetxu gehiago ateratzeko.

Geoparkeko BIRA. Sasoiz kanpoko promozioa bultzatuko da bai publizitate bidez eta baita press/blogger trip bidez ere. Eskuorri berri bat diseinatuko da aurrekoa agortu denez gero.

Kirol ekitaldiak. Ohiko ekitaldiekin elkarlana mantenduko da.

- Lasturko Mendi Martxa. Geoparkezaleekin batera kirol ekitaldian oinarrituta eskaintza zabalago bat kaleratu da.
- Zumaia Flysch Trail
- Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia

Portuetako panelak berriztuko dira, Geoparkearen presentzia areagotzeko eta irteera puntuak hobeto azaltzeko.

Tour Birtualari bukaera emango diogu, web gunean atala sortu eta neurketak egingo ditugu.

2.2 Irteera gidatuak

2026 amaieran irteera gidatuen gestioaren kontratua bukatu egingo da, urte bukaerarako berriro pleguak aterako ditugu. Bitartean, iaz definitutako estrategiari eutsiko diogu, gutxien ateratzen diren bisitak bultzatuz, defizita kontrolatuz. Aldi berean, talde eskaeren kudeaketa zehaztuko da, jarraipena indartuz (inkestak eta komisiok) bai talde pribatuekin baita eskolekin ere.

Azpiegitura berriak irekitzen direnean, gaur egungo bisitei eragiten dien neurrian, egokitzapena beharko dute.

2.3. Promozioa eta merkaturatzea

- **Turismo azokak:** Aurten, Ekoturismo klubak eskaintzen dizkigun aukerak aztertuko dira. Bilboko BasqueFest azokan ez dugu parte hartuko Txoko Gourmet karparik ez dutelako jarriko aurten. Fiturren, urtero bezala, ordezkaritza bikoitza izango dugu, Geoparkeen standean eta Euskadi

Basque Country-renean. Aurkezpen bana egin dugu “Geoparkeko Tour Birtuala” ezagutzera emateko.

- **Donostia-San Sebastián Turismoko** bazkide gara iaztik eta gure irteera gidatuak saltzen ditugu bai Donostiako bulegoan eta baita beraien webgunean ere.

3- LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

Baliabideen kontserbazio eta kudeaketa iraunkorreko arloek duten garrantzia azpimarratzen da.

3.1. Ibilbideak

- **Mutriku eta Deba arteko pasealekuaren** interpretazioaren proiektua egitea aurreikusten da. Horretarako mahai misto bat sortu behar da Mutrikuko Udaleko ordezkariekin, oinarriak ezarri eta proiektua idazten joateko.
- **Geoibilbide** berriak aurre ikusten dira: Saturraran eta Lasturko Kanala.

3.2. Mugikortasun iraunkorra

Elorriagako aparkalekua kudeatzeko sistema bat ipiniko da, N634 bideko bidegurutzean. Baserritarren eskaerei erantzuna ematen dion ekimen hau Next funtsetatik ordainduko da.

3.3. Interpretaziorako azpiegiturak

2026 bitartean Next funtsekin finantziatutako azpiegiturak irekiko dira:

- Flyschenea Museoa
- Moilaberri Zentroa
- Talaixa Geomuseoa
- Debako turismo bulegoa
- HAB
- Lasturko kanala
- Tour birtuala

3.4. Natura-ingurunea babestea eta kontserbazioa

Urtero bezala Naturagune babestuetan esku-hartze bat egingo da. Aurten, **Artzain-errekan (Mutrikun)** izango da, udalak hasi zuenari jarraipena emateko.

Nazioarteko Egunak eta bestelako ekimenak:

- Hezeguneen Munduko Eguna, urtarrilaren 31n, Ormolan.
- Uraren Eguna, martxoaren 22an, Lasturko Kanalarekin lotu daiteke.
- Entomologia topaketak, Geoparkeen Astean, Errotaberrin.
- Ama Lurraren Nazioarteko Eguna, apirilaren 22an, sendabelarren tailerra.
- Geodibertsitatearen Nazioarteko Eguna, urriaren 6an.
- Mendien Nazioarteko Eguna, abenduaren 11an.
- (...)

4- BERTAKO GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

4.1. Lehen sektorea bultzatu

- Geogourmet otarrak. Bertako produktuekin egindako bi aukerak mantenduko ditugu, Gazia (gazta, atuna eta txakolina) eta Gozoa (eztia, sagardoa eta txokolatea).
- Debemen eta Urkomerekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta ustiapena daukaten baserritarrekin Paisaia Natural Babestuan sortzen diren arazoak konpontzeko dinamikak bultzatuko dira.

4.2. Geoparkezaleak

2025ean Geoparkezaleekin egin zen lan saioaren ondorioz, 2026an aurrera eramateko hainbat proposamen atera ziren:

- Entitate Laguntzaileen batzorde dinamizatzaile bat sortu.

- Egiten diren ekimenak identifikatu eta bertan Geoparkezaleen promozioa bultzatu, esaterako, Lasturko Mendi Martxan.
- Geoparkezale berrien manifestu eta sinadura ofizialak.
- Ohorezko Geoparkezale bat izendatu.
- Geoparkezale figura beste sektore batzuetara zabaltu: eskola, merkatal edo kultura elkarteetara (Beduola, Saturraran edo Animadeba)

4.3. Europako Geoparkeen Astea

“Zientzia eta Surfa” izango da aurten leloa. EHUko Kultura Zientifikoko Katedrarekin batera antolatuko da (maiatzaren 22tik 31ra). Surf eskolen eta elkarten partaidetza eskatuko da.

- Erakusketa (barne eta kolean)
- Hitzaldiak (fisikariak, meteorologoa, osasuna)
- Geotalks, Surflari famatu batekin
- Olatu plantara bisita
- Bestelakoak (2. Eskuko merkatua, surf ikastaroa, marrazki lehiaketa...)
- Bestelako gaiekin antolatutakoak, Biraren etapa bat, Biotop (intsektuak), ipuin laburren lehiaketam etab.

5- GESTIO OROKORRA, KOMUNIKAZIOA ETA MARKETINA

5.1. Gobernantza

Helburuak:

- Udal teknikarien arteko lan-mahaiak indartu behar dira: turismoaz gain, hezkuntza, kultura eta ingurumena.
- Kultura elkarteekin harremanak sendotu, kultur-ekimen berriak sortu edo daudenak indartzeko.

- Urkome, Debemen, GFA, Geoparkea eta Paisaia Natural Babestuko baserritarren arteko mahaia.
- RCE Centro Regional de Educación para el Desarrollo Sostenible sareko kide izaten jarraitu.
- Alianza 2030, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen dinamikan parte hartzen jarraitu.

Turismo Enpresa Adimenduna (TEA) UNE 178510 arauaren ezartzea Geograpen Elkartean. Teknologia eta ikuspegi berritzaileak erabiltzen dituen turismo-enpresa, kudeaketa-sistemak, zerbitzuak, produktuak eta bisitarien/bezeroen esperientzia orokorra hobetzeko.

Irteera gidatuen lehiaketa publikoa kaleratu, proposamenak aztertu eta kontratu berria sinatuko da.

Flyschenea Museorako gestioaren pleguak kaleratazen lagunduko dugu, zerbitzua martxan ipintzen denean Geoparkeak eskolekin eta orokorrean dituen dibulgazio premiak asebetetzeko.

Geoparkeko **lantaldea** bere horretan mantentzea da asmoa. GFaren eta udaletako teknikarien partaidetza sustatzen jarraituko dugu.

- **Gerentziak** geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko (EGN/GGN) eta Geoparkeen Espainiako Batzordeko (CNEG) ordezkartzako funtzioak hartzen jarraitzen du. Espainiako Geoparkeen Sareko eta Geoparques Unesco Elkarteko koordinazio-taldeko kidea eta koordinatzaileordea, hurrenez hurren.
- **Bisita gidatuen dinamizatzaileak**, 2026rako, zeregin hauek izango ditu: erreserben online sistema berriaren ezarpena eta kudeaketa eta turismo-arloaren kudeaketa orokorra.

- **Komunikazio eta marketin-arduradun**, webgunea kudeatu, prentsarekin harremana, aurkezpenak, etab. Orokorrean, arloko gestio orokorra eramango du. Marketin Planean oinarritutako marketin-ekintzak martxan jartzeaz ere arduratuko da.

Kanpo laguntzak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitzen du, EGNko eta GGNko ordezkartza eta IUGSko (International Union of Geological Sciences) Ondare Geologikoaren Batzordearen koordinazioarekin batera.
- **Community managerra** (RRSSen kudeatzailea) @Geoparkearen estrategiarako Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan.
- **Ingurumena eta ingurumen hezkuntza** koordinazioa, Naturagune Babestuetako jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko.
- Kontabilitate-aholkularitza, aholkularitza juridikoa eta urteko kontuen auditoretza erakundearen eguneroko kudeaketarako.

5.2. EGN, GGN eta Espainiako Geoparkeen Sarea (REGM)

Atal honetan gertakari esanguratsuena 2026an **laurteko ebaluaketa** izango da. Datak zehaztu gabe daude oraindik baina udaberri aldera izango da, UNESCOren bi ebaluatzaile etorriko dira azken lau-urteetan egindako aurrerapenak egiaztatzen. Txostena eta dokumentazio guztia Kanpo Harremanetarako Ministeriora bidali dugu UNESCO Parisera berbidali dezaten.

Ebaluaketaren emaitza dakigunean, aurreikuspenen arabera urrian, ezagutzera emateko kanpaina bat abiatuko dugu herritarrei begira.

EGN eta GGN-ko urteko ekarpenak ordaindu behar dira, aurten gainera Geoparkeen Elkarteko ekarpena gehitu behar da.

Sareko urteko hitzorduak:

- EGN CC meeting: Karavanke (Austria-Slovenian), martxoaren 23tik 27ra.

- EGN Conference: Saimaa (Finland), irailaren 16tik 18ra.
- Espainiako Sareko **Jardunaldi Irekiak** Euskal Kostaldeko Geoparkean izango dira. Gaia, datak eta programa zehazteke daude (urriaren 6tik-8 egiteko aukera. Tokia Zumaian Aitamari edo komentuan)

UNESCOren Geoparkeen Elkarteak bost kide gehiago izango ditu. Euskal Kostaldeko Geoparkea fundatzaileen artean dago Las Loras, Maestrazgo, Cabo Ortegal eta Origen-ekin batera. 2026an beste horrenbeste atxikituko dira, Villuercas, El Hierro, Lanzarote, Montañas de Courel eta Molina-Alto Tajo. Elkarteren eguneroko gestioan oso lagungarri izango da geoparke berrien atxikitzea.

CNEG (Comité Nacional Español de Geoparques) en partaidetza mantentzen dugu, EJko Ingurumen Zuzendariarekin batera. 2026an helburu nagusia batzorde bera sortzeko **Errege Dekretua** onartzea izango da, zirriborroa adostuta eta tramitazioan dago.

Txostenak eta promozioa:

- EGN newsletter, GGN newsletter eta EGN magazinetera ekarpenak bidali
- Urte bukaerako txostena eta Europako Geoparkeen Asteko txostena bidali

Geoparkeko bi ordezkari ofizialak UNESCOren ebaluatzaileen zerrendan daude eta urtero bezala beste geoparke batzuk ebaluatzera joango dira.

Geoparkeko zuzendari zientifikoak IUGSeko Ondare Geologiko koordinatzaile lanetan jarraituko du eta lan postu horrekin lotuta dauden beste ordezkaritzetan eta kargu horrekin lotuta, EGN eta GGNko aholkularitza batzordean, UGP Executive Boarden eta GGNko Councilen.

5.3. Komunikazio estrategikoa

ONLINE

- Webgunean eguneratzen jarraituko dugu. Edizio aldetik hobekuntzak egin behar dira hornitzailearekiko dependentzia gutxitzeko. Atal batzuk eguneratzeko premia dute, entitate laguntzaileen atalak adibidez.
- Albisteen atala eta bloga elikatzen jarraituko dugu.
- Newsletterra ere mantendu egingo da, gure bezeroei informazio eta ekitaldien berri emateko.
- Marketin digitaleko ekintzak egingo dira. Adibidez, Geoparkeko Biraren promozioa toki jakin batzuetan.
- Bideo laburrak egingo dira sare sozialetan partekatzeko.

OFF LINE

- Prentsa-oharrak eta/edo prentsaurrekoak egingo dira, eta harreman estua izango da inguruko komunikabideekin.
- Publizitatea kontratatuko da komunikabideetan, irratan, prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Nekatur, Escapada rural, Basque Luxury, Pyrenaica, Animadeba, Guka edo Berrian adibidez.
- Blogger tripa antolatu, adibidez Guk Green-ekin

5.4. Marketina

2025ean hiru udaletako turismo zerbitzuen irudia eta Geoparkearena bateratu egin ziren. 2026an irekiko diren azpiegitura berriak irudi bateratu hau mantenduko dute geoparkekiko lotura indartuz.

- Logo berrien kanpaina bat egingo da erabilera eta irizpideak zehazteko, udal barruan eta herritarrei ezagutzera eman.
- Bertakoentzat marketin kanpaina bat aurrera eramango dugu. Helburua Geoparkearen ulermena zabaltzea da azpiegitura berriak aprobetxatuz.

- Irteera gidatuen bonuak zozketatuko dira, ikusgarritasuna duten ekimenetan.
- Arropa korporatiboa egingo da Geoparkearen irudia indartzeko.
- Geoparkeko logoa duten bixerak, merchandising elementu berri gisa.